

Fran Urias, kontzertuak airean

Bagilaren 13an, Hesian taldeko Fran Urias eta Zuriñe Hildalgok kontzertua emon eben *lemoakoudala.nirestream.com* plataformaren bidez. Itxialdiaren osteko lehenengo kontzertua izan zan. Esperientzia berezia, oso desbardina izan zala dino, salbuespen egoeran urtenbide txiki bat izan daitekena. Baina holangoak egiteko beharizanik ez egotea eta publiko aurreko zuzeneko kontzertuak emon ahal izatea espero dau. **12. orrialdea**



Amaia Alday
ETB1eko
Plazandreak
pelota saioan
egongo da

10. orrialdea

Konfinamentua atzerrian II

Arratian, Europa orokorrean legez COVID-19a ez kutsatzeko neurriak leundu diranean, beste leku batzuetan, Amerikan barbarako, hildakoen kopuruak ez dau oindino goia jo.

Osasun autoridadeen gomendioak jarraituz, hemengo moduan, herrialde askotan, martian eta apirlean, konfinamentua ezarri eben. Neurri gogorrenak kentzean hasi dira leku batzuetan, baina atzera ezarri daitezke, gaixotasunak gogor jo ezker. BEGITU atzerrian bizi diran arratiarrakaz ipini da kontaktuan eta euren testigantzak dakarz erreportaje bitan. Bigarren honetan, Lemoako Irune Garciak Maltan bizi izandakoaren barri emoten dau. AEBko Illinoisen dago Eider Etxebarria lemoaztarra eta Oregonen Itxaso Goikoetxea Zeanurikoa; Ander Basilio igorretarra, Gambian eta Aimar Iturriondobeitia Dimakoa, Sydney-n (Australia). **8. eta 9. orrialdeak**



IGORRE

Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linea egiteko torreak egiten dabil REE

BFAk, urtailean emondako Foru Aginduak Red Electrica Española (REE) enpreari Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linea egiteko baimenik ez emotea ebatzi arren, Igorrebason (Igorre) eta Artandan (Zeberio) urte hasieran torreak egiten hasi ziran.

Hasikeratik kontra egonda, linea hori ez egiteko bide administratibo guztiak agortu ostean, Igorreko Udalak bide judizialari ekin eutsan, goi-tensinoko linea kautelaz geratzeko eskatuteko. Baina eskakizunak ezetza jaso dauala jakin eban Udalak martiaren hasieran. **5. orrialdea**

LEMOA

Lemoako jaiak online izango dira

Udaleko plataforma digitalean, *lemoakoudala.nirestream.com*-en, emongo jakie hasikerea jaiak garagarriaren 31n, 12:00etan, txupinazo eta pregoiagaz. Kontzertuak be online izango dira, Txapelpunk taldea egongo da San Inazio egunean eta La Topadora hurrengo egunean. **5. orrialdea**

EKIN 30 urte behar

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

ARRATIA

Gaztetxeetan jarduera kulturalak

Garagarriarako, hainbat kultura ekitaldi antolatu ditue eskualdeko gaztetxeetan. Igorreko Kiñu Gaztetxean, esate baterako inprobisazino ikuskizuna, kontzertua eta ikastaroa antolatu ditue eta Lemoan, Gaztetxe ondoko parkinean, zinea emongo dabe eguraldiak lagunduten dauan egunetan. **12. orrialdea**

umeen moda

sein 0-16

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

Literatura txokoa

BITAKORA KAIERA

Hiztegigintzan azken hamarraldiotan ebatzi garrantzitsuenak hartu dituan gizonaren gogoe-tak. Euskera batuan zein berba erabili eta zein ez, horixe izan da bere lan nagusia. Gure hizkuntza gogoko dauan edozeinentzako liburua. Bere jardunean zergaitik eta zelan hartu ziran hainbat ebatzi ulertzeko ezinbestekoa. Keynesen aipu bat topauko dogu lehen orrialdeetan: "Egitateak aldatzen diranean, eretxiak aldatu egiten dodaz". Eta halaxe jokatu dau Sarasolak azken urteotan, kapaz izan da bere eretxi eta usteak ezelangoraz barik aldatzeko; aspaldi hartu ebazan ebatzi batzuk arrakasta gitxiokoak izan zirala aitortzen dau. Errealidadearen bahea kontzeptua erabili izan

dau makina bat aldiz: Sarasolak argi eta garbi dauka, Keynesek legez, hiztunak Akademiaren kontra egin eta bestetara egiten badabe, Akademiak hiztunaren jokaerea onartu eta eretxiz aldatu behar daua.

Hamaika adibide erabiliko ditu hiztegigintzan eta euskera batuan lexikogintzan zelan jokatu izan daben azaltzeko. Ebatzi arrakastatsua eta ebatzi okerrak, danetik erakutsiko deusku liburuan zehar. Hasikera baten beste titulu bat eukan gogoan: *Kontuak garbitzen* edo *Kontuak garbitzen neure buruarekin*. Emoten dau liburu honegaz bere buruagaz zorra kendu daua.

Sarasolak aldarrikatuko dau filologoen garaia amaitua dala eta

hemendik aurrera idazleak hartu behar dabela gidaritzea. Filologoak esan beharreko guztiak esan ditue, eta oin idazle eta prosalari trebeai jagokie gure hizkuntza zabaldu, aberastu eta edertzea. Euren ardura da hemendik aurrera euskaldunoi erakustea badagoala beste modurik oin arte esandako guztia beste modu baten esateko.

Akademiaren ebatzien kontrakoa izaten da batzuetan hiztuna; gogo txarrez hartzean ditu Akademiaren hainbat ebatzi. Baina ekinean dabilenari onartu egin behar jako hanka sartzeako eskubidea. Atoan irakurteko moduko liburua; interesgarritik asko daukalako, inondik be. Eta seguruenik Akademiaren lanagaz ulerkorragoak izaten lagunduko deuskuna.

Mikel Urkixo Aierdi



Ibon Sarasola

Bitakora kaiera

Erein, 2016

160 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 29tik garagarilaren Sera

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 6tik 12ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 13tik 19ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 20tik 26ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarriotza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegun eta zapatuetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefona: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.
Publizitatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeanuritik Gorbeia ingurura dagozan igoerak berreskuratuteko gogoetak

Zeanuriztar eta mendizale moduan, gure inguruez maiteminduta nago eta neurri berean kezkatuta be bai.

Arratia osoan Gorbeia joateko erreferentzia Zeanuri izan dan arren, aituten ez dodazan errazoiakaitik, lotura hori galduaz joan da. Adibide bat aitatu dot. Ointsu, N-240 errepidean Gorbeia Parkerako bidea erakusten daben seinaleak Arratiako herri guztietan ipini dira, Zeanurin izan ezik.

Gure herritik Gorbeia, Lekandara, Aldaminera... daukaguzan igoera desbardinak bertan behera itxita dagoz.

Gure herriaren garapen orokorrerako bide horreek berreskuratutea sano garrantzitsua izango litzateke.

Hau guztiau hurrengo hausnarketara egiteko eskatutako da. Ez dakit baten bat ahaztuko jatan, baina bai Joko Alairi, Gorbeia Suzienekoai, Udalari, ganade-

ruai, terreno pribaduen jaubai eta bide honeekaitik arduratuta dagoan beste edonori, zera eskatuko neuskio:

Auzolanean, bide honek, ahal dan neurrian, errekueretea.

Lehenengo eta behin, lehenagoko San Justoko bidea errekueretea. Hau da, Arrabaldetik, Topetako bidetik Pagomakurreko bideagaz topo egin arte.

SL (Tokiko Ibilbidea) bezala izentau leiteke. Helburua eta egin beharrekoa: bidea ondo markau eta garbitutea izango litzateke. Horretarako goian aitaturako eragile guztien partaidetzeagaz lantalde bat sortzea komenigarria izango litzateke, guztia koordinetako.

Aurrerantza begiratuta, PR (Ibilbide Laburra) ibilbidea egin leiteke.

Apurka-apurka, beste igoerak be berreskuratuten joan.

Honeguz guztiagaz ez daukat ezelango asmorik Zeanuri Zermatt txiki bat bihurtu daiten, baina bai merezidu dauan inportantzia emotea.

Beste barik, zuen erantzun eta ekarpenen zain geratuten naz.

PEDRO MARI LEJARZA IBARRONDO

ERETXIA

Gure zuzeneko musikea babesteko daukaguzan tresnak egoki kudeatu behar doguz

Teknologia barriak garrantzi izugarria hartu dabe pandemiaren garai honetan. Konfinamentu gordinean familiak eta lagunak alkarrengana hurreratu dira tresna horreei esker. Laneko batzarrak eta eguenetako pintxo poteak bideokonferentziatik egin izan doguz. Kontzertuak be, zeozelan, ez dira gelditu. Akustikoak zein elektrikoak, etxean egindakoak zein areto zarratuetan egindakoak, musikariak euren musikea partekatzeke aukerea izaten jarraitu dabe.

Aprileko lehenengo egunetan Kvelertak talde norvergiarrak streaming bidezko kontzertu bat iragarri eban. 10 euroren truke, zure gailu kutunenean emonaldia ikusteko aukerea izango zenduan. Etabaide arin biztu zan. Etikearen inguruko berbaldi iraingarriak irakurri genduzan. Batzuek esperimientua baino ez ete zan galdetzen eutsien euren buruari. Beste batzuek, ordea, produktu aprobetxagarria ikusten eben streaming bidezko kontzertuetan.

Asteak pasau ziran eta gure kultura, gure musikea, gure sarea martxan ipini ziran. Euskal Herrian internetez baliatzen ziran zuzeneko musikearen inguruko ekimen berezi desbardinak sortu ziran. Horreen artean, Naiz kontzertuak saioa jaio zan helburu zehatz bategaz: bizi garan une zakarrean musikearen inguruko komunitadea indartu, mantenu, lagundu eta, zeozelan, musikeak gure bizitzetan zehar emon deuskun guztia musika munduari bueltetea. Horretarako, bost kontzertu iragarri ziran eta, horregaz batera, kontzertu bakarra ikusteko sarrerea, emonaldi guztiez gozatzeko bonoa eta taldeai laguntzeko aukerea aditzera



IZKANDER FERNANDEZ
Kazetaria

Streaming bidez emondako kontzertua betiko zuzeneko ereduagaz lehian sartu daiteke? Euskal Herriko historian zehar hain errotutako eredu, zuzeneko kontzertuena, eztabaidagarria da? Zelango onurak ekarriko deuskuz streamingak, talde, langile, publiko edo areto modura?

Streaminga, interneta lez, tresna bat baino ez da. Oso eraginkorra dan neurrian, ondo edo txarto erabiltea funtsezkoa da. Streamingak gure etxearen lau hormaren barruan emondako bizitzari garrantzia emoten deutso. Eduki eta produktuen gainean ipinten dau argia eta ez, akaso, kultura eta sormenaren gainean. Ildo horretatik, ezin da ahaztu streamingak gure komunitadea desaktibetako poderea euki dagiala. Tresna ondo erabiltean, hasiko gara asmatzen eta arrakasta izaten.

Tresnak beharrezkoak doguz eta tresnen kontra aritzea etorkizunaren kontra aritzea langoa litzateke. Baleiteke streaming bidez igorritako kontzertuak gure musikearen beste osagai garrantzitsu bilaketzea etorkizun hur baten. Akaso, positiboak eta eraginkorrak izan daitekez gure talde, areto eta publikoarentzat. Irakurketan sakontzeko denpora gehiago behar dogu oindino. Baina hori gertatzen bada be, guztiok partekatutako estrategia baten pean gertatu beharko da.

Zuzeneko musikea, gure komunitadean eta mundu osoan historikoki existidu dan hizkuntza artistikoa izan da. Artista eta publikoaren hartu-emonean oinarritzen dan hizkuntza. Eta gaur egun, hizkuntza hori kontu handiz babestu behar dogu. Aktibau egin behar dogu gure komunitadea, eskura daukaguzan tresnakaz. Holan bada, normaltasun barriaz harago doan benetako normaltasuna berreskatu arte, streaminga erabili behar dogu. Eta akaso, betiko erabilten jarraitu beharko dogu; holan bada, zuhur jokatzera jagoku, kontu handiz, azken hamarkadetan gogobetegarria izan dan formula baten integraz eta ez gure sarea mindu daiken munstroa sortuz.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Jantza



Musika-tresnen soinetara moldatuta egiten dan mobimentu eritmiko konpasatuari jantza esaten jako (yántzea, ahoskatuta). Batuan, dantza da. Personearen gorputzak (besoak, hankak, burua...) eta bikotekidearenak ez dabe alkar ikutu behar jantza soltuan. Baltsean, barriz, soltuaren aldean, motelago ibiltzen dira jantzalariak. Gaur, argazkian dakarguna Arratiako jotea da, jantza tradizionala edo folklorikoa izateaz gain, gure altxor kulturala be bada. Adibidea: "Gaztetan erromerietara joaten gintzezan, eta kantsau arte jantzan egiten genduan".

Gugaz harremanetan ipinteko 94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizidadea: 649 979 115

begitu@topagunea.com www.begitu.org

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B · 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

BICIS BIZI
Arratiarren denda
Tel. 94 634 50 30
icaris@topagunea.com
Gregorio Mendiz kalea, 12

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

Gehien maite doguna zaintzen daben horreei

Mundu mailan bizi dogun osasun krisiak makina bat gauza ikasteko balioko deusku, seguru. Baina horreen artean garrantzitsuenetako bat osasun sistema publiko sendo eta eraginkor bat izatearen garrantzia dago. Berba asko egin da honezkeroko gai horrerik buruz eta horregaitik ez dot bide horretatik joko. Ha-ta guzti be, idea horretatik tiraka, hurreko egoera batera etorri gurako neuke hurrengo lerro honeetan. Mundu mailatik maila lokalago batera salto egin, hemen, Igorren daukagun osasun zentroari erreparetako. Izan be, pandemia kontuak alde batera itxita, euren lana beste ikuspuntu batetik ezutetea tokau jata atzen urte honetan: ume jaio barri bat daukan gurasoaren ikuspuntutik.

Ume bat jaiotzean danean, asko dira bidean agertzen diran

zalantza, galdera, kezka eta bil-durrak. Oindino gehiago, ume hori lehenengo danean. Ha-ta guzti be, atzen urte honetan Igorreko osasun zentroan bizi izan dogun esperientzia oso positiboa izan da beti. Lehenengo haurdunaldian zehar, eta gero umea jaio ondoren, bertako osasun langileen aldetik jaso dogun harrerea eta laguntzea bikaina izan da. Gure kasuan, esate baterako, Maria emagina, Iratxe pediatrea edo Lucia erizainagaz topo egiteko aukerea izan dogu, eta konsulta bakotxean erakutsi deuskuen pazientzia, hurrentasuna eta txera ez dira diruagaz ordaintzen. Horregaitik guztiagaitik, gure eskerrik beroena luzatu gura deutsegu langile honeei eta zentroko gainontzekoai be bai.


Esakerak ondo dinoan moduan, gauzak ez dira behar dan moduan baloretan galdu egiten diran arte. Danon artean eregi eta mantendutun dogun osasun sistemeagaz be beste hainbeste gertatzen da. Pandemia bat tartean ala ez, daukagun sistema hau bizitza osoan zehar zaindu eta defendidu beharreko ondasun legez ikusi behar dogu. Izan be, momentua heldzean danean, gehien maite doguzan persona txiki horreek be ezin hobeto zainduko ditue bertan.

ZERTZEAN



AMAIUR SANTOS

Dream expression



BEGI TXINDORRA

Urtero lez, gure Oporretako Argazki Lehiaketean ipini dogu martxan. Aurten be BEGITU irakurleakaz zuen momenturik onenak konpartidutera konbidatzen zaituegu; jakinda, urrun joan barik be, opor ederrak disfrutatu leitekezala.

Argazki lehiaketaren oinarriak:

- 1.- Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasotzen dauan edonor.
- 2.- Gaia: Argazkiak 2020ko oporretan egindakoak izan behar dira.
- 3.- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz ateratzen diren esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 4.- Nora bialdu: begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira.
- 5.- Aurkezteko epea: 2020ko garagarilaren 1etik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk.
- 6.- Epaimahaia: BEGITU Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
- 7.- Epaia: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenean argitaratuko da aldizkari honetan.
- 8.- Lehenengo saria: Persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaia egoki jo ezker.
- 9.- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzargia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu 101
R.P.S. 31/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 64 62 · 506 664 018

Lehendakari Agorri 22
ETROITZ
Agortzen gaurik ez dago!

IGORRE

Igorreko Udalak ipinitako Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linea kautelaz geratzeko eskakizunak ezetza jaso dau

Red Electric Española (REE) enpresea Gueñes-Itsaso goi-tensinoko linea egiteko hainbat torre eregiten hasi da.

Erredakzioa

Igorreko Udala proiektu honen kontra agertu da hasikeratik, "ez da bidezkoa, ez da legala eta ez dau kontuan hartzean sai zuria" dino Illart Gumuzio alkateak. Horregaitik, hau geldituteko bitarte administratibo guztiak agortu ostean, bide judizialera jo eban Udalak, kautelaz obra guztia geratuteko eskatuz. Justu "alarma egoerearen aurretik", bere eskakizuna ez zala onartu jakin eban Igorreko Udalak.

REEk 2018ko zemendian jaso eban Espainiako Ministro Kontseiluaren baimena, 400 kV-ko energia garraiatzeko zirkuitu bikotzeko Gueñes-Itsaso linea proiektua "interes orokorrekoa" dala argudiatu. Igorreko Udalak, lan horrekin, Bizkaiko Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko 422/2020 Foru Agindua aintzat hartu barik egiten dabilzala salatu dau.

Izan be, goi-tensinoko lineak, ingurumena babesteko baldintzak bete behar ditu. Eskumena Foru Aldundiaren da eta azterketea egin ondoren, ondorioztatu eban, Igorre eta Lemoa arteko sai zuriaren habiagintza eremuari kalte egiten deustala goi-tensinoko lineak, eta

ebatzi eban baimenik ez emotea REEri horretarako. Aprilaren 30ean, REEek Agindu Foralaren kontrako errekursoa sartu eban.

Igorrebasoko inguruan "sai zuriak habia barri bat egin daua" la emoten dau. Eta, urtero lez, geugaz izango dogu urrietararte" dino alkateak.

Obrak hasita

Gueñestik Zollora ia guztia eginda dago. Gurean urte hasikeran hasi ziran torreak egiten, Igorrebason (Igorre) eta Artandan (Zeberio). Konfinamentuan, erritmo arinean ibili dirala dino Gumuziok. "Igorren Igorrebason egin dabe torrea. Sai zuriaren habia beste aldean dago: Urkuzu, Garamendi, Arlanpe... inguru horretan. Torrea egun batetik bestera egin eban. Oso prisa handiaz dabiz egiten".

Goi-tensinoko lineak herritarren desadostasuna izan dau hasikeratik. REE 2009an aurkeztu eban aurreproiektua eta 2011n, hainbat udalkek, Igorreko Udala tartean, alegazioak eta alternatibak aurkeztu ebezan: ingurumenari jagokozan alegazioak, etxebizitzai distantziak, urigintza aldetiko eraginak... Ingurumenaren gaineko txostenak egin ebezan erakundeak eta herri-



tarrak, eta proiektua geldirik egon zan 2017ra arte. Gero, "onura publikoko" lan moduan izentau eban Espainiako Gobernuak eta obrak egiten hasteko baimena emon. Goi-tensinoko linea ez egiteko bide administratiboak agortu ostean, Igorreko Udalak bide judizialera jo eban.

Urtaileko Foru Aginduak sai zuriaren habiagintza eremuan ezin dala goi-tensinoko linearik egin dino. Arrankudiagako alkate dekretu batek lortu dau hango obrak geratutea. Igorrekoak, Foru Aginduak obrak guztiz gelditutea lortzean ez badau, espero dau prozesu judizialak gelditutea.

ARRATIA

Jaien ordezkultur ekintzak

Erredakzioa

Lemoako jaiak izaten dabe protagonismo nagusia garagarriean, auzuneetako jaiak batera. Aurten, COVID-19aren pandemia dala-eta, jaien ordezkultura ekintzak antolatuko ditue udalak eta alkateak: formato txikiko kontzertuak, antzerkiak, kalejirak... beti be aforo mugatua eta osasun neurriak hartuta eta, gehienetan, egitarauak publiko egin barik, jentetzak saihesteko.

Hilaren amaierako Lemoako saninazioez gainera, auzune eta ermita inguruetan, hile osoan zehar ospatuten dira jaiak: santomasak, sankristobalak, santamañeak, sansegismundoak, madalenak, santia-

goak, santanak eta saninazioak, hain zuzen be.

Lemoak jaiak online ospatuko ditue. Hilaren 31n, 12:00etan emongo jakie hasikerea Udaleko plataforma digitalean txupinazo eta pregoiagaz; eta 22:00etan, Txapelketa taldearen kontzertua egongo da. Hurrengo egunean, 17:00etan, Play-back erakusketea eta 22:00etan, La Topadora taldearen kontzertua. Honeek dira momentuz baieztatuta dagozan ekintzak.

Zeanuriko txapelketak

Jaien ordezkultur ekintzen barri emoteko, Zeanuriko Udalak, kartel lehiaketea antolatu dau. Parte

hartzeako Zeanurikoa izan behar da. Sari bi egongo dira: 14 urte arteko irabazlearentzat, 100 euroko bonoa eta nagusientzako euskal produktuen otzara bat. Kartelean, Zeanuriko Andra Mari kulturalak 2020, abuztuaren 13tik 16ra testua agertu behar da derrigorrez eta proiektuak garagarriaren 10era arte aurkeztu daitezke udaletxeko erregistroan edo harrera@zeanuri.eus helbide elektronikoan.

Abuztuaren 10era arte, Zeanuri Loran III. Txapelketea jokatuko da. Atal bi izango ditu: pisuetako balkoiak eta etxeetakoak. Herriko etxe eta pisu guztietako balkoiak begiratuko ditue epaimahaikoak. Pisu bateko balkoirik politenak 200 euroko saria jasoko dau eta bigarrenak 100 euro. Etxeetakoak be sari bardinak jasoko dabez.

ARTEA, LEMOA

Umeentzako jolasak

Erredakzioa

Oingo udarako, udalak jolasak presatu ditue herrian geratzen diran umeentzat. Artean, Udan Jolasean programea ipiniko dabe martxan garagarriko martitzenetan. Umeak, edadearen arabera txanda bitan parte hartu ahal izango dabe eurentzat antolatutako tailerretan; 11:00etan 5 eta 8 urte bitartekoen txanda izango da eta 12:30etik 14:00etara, 9 eta 12 urte artekoena. Tailerrak plazan edo frontoian izango dira. Aurreko barikua baino lehenago emon behar da izena udaletxean

eta maskarea erabili behar da.

Lemoan, bagilaren 29an hasita garagarriaren 24ra arte, egunero ekintza bat prestatuko dabe Kalea hartuz 2020ko Uda izeneko programan. Ekintzak, partaide "bako-txak gura dauan momentuan egin ahal izango dau, adibidez ginkana bat herritik zehar edo jolas erraldoi bat Lemoako parke desbardinetan" azaldu dabe Udaletik sare sozialetan. Jakiteko zein ekintza dagoan herrian modu bi dagoz. Bata, Udalak ipiniko dituan paneletan begiratzea da, eta bestea, Udaleko Facebook-ean agertzen dan esteka baten sartu eta agertzen dan inprimakia betetea da. Holan, egunero WhatsApp edo email-en bidez ekintzaren informazioa bialduko deustie erabiltzaileari.

DIMA

Zurumuru matxisten kontrako ekimenak

Erredakzioa

Eraso sexistetan zurumuru matxistak jokatzen daben papela agirian itxi guran, Andraizea herriko andra taldeak, *Zurumuru matxistak ez!* izeneko formazino ikastaroa antolatu eban. Asmoa bagilaren erdikaldean egitea zan, jaiak begira, eraso sexistak gehitu egiten diralako testuinguru honetan. COVID-19aren alarma egoereak eta normaltasun barriko arauak, bertan behera itxi ditue jaiak eta ikastaroa be apur bat atzeratu egin behar izan da. Ha-ta guzti be, bagilaren 24an, osasun neurri guztiak hartuta, ikastaroa modu presentzialean egitea egon zan.

Kiskali Basauriko Gazte Talde Feministako kideak emon eban formazino. Partaideak, eguneroan, jaietan eta parte hartze eremuetan entzuten dituen zurumuru matxistak identifikatu eta ze-

lan erantzun horreei landu eban. Formazino honek hogeitau ordu ingurukoak izaten dira. Diman, 3 orduko tailer moduan planteatu zan, baina gai hau landuten jarraituteko asmoa agertu eban antolatzaileak, partaideak gura ezker. Izan be, oinarri bako zurumuru matxistak, indarkeria dira, estereotipoak eta intolerantzia bultzatzen ditue eta desbardintasuna eta diskriminaziorako hazia ereiten dabe.

Zapi moreak balkoietan

Ikastaroaren harira, Andraizeak Zurumuru matxistak ez! leloagaz zapi moreak egin ebezan jentek balkoietan ipinteko jaiak izan behar ziran egunetan. "Sano erantzun ona izan dogu. Ehun personak eskatu dabez zapiak balkoietan ipinteko eta herriko komertzioetan be bananduko doguz" azaldu eutsan begituri Andraizea taldeko partaide batek jai bezperetan.



ARRATIA



Proiektuen arloko laguntzaile lanetarako lan-boltsea sortuko dau Gorbeialdek

Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea, proiektuen arloko laguntzaile lanetarako lan-boltsea sortutea gura dau. Parte hartzeako eskabideak garagarriaren 6ko 14:00ak baino lehenago aurkeztu behar dira Gorbeialdeko egoitzan, Areatzako Askatasun kalea 34an, edo posta elektronikoz gorbeialde@gorbeialdea.com helbidean.

Lan-boltseak eskainiko dauan lana aldi baterakoa izango da. Lan-boltzan egoteko bete beharreko baldintzak, euskera B2 Hizkuntza Eskakizuna, Batxilergo titulua edo baliokidea, IT txartela eta B1 gidabaimena eta ibilgailu propioa izatea.

Hautaketa-faseak bi izango dira: alkarrizketa personala eta merezimentu puntuagarrien balorazioa.

ARRATIA

Lanbide Heziketako arlo maskulinizauetan nesken presentzia handitzeko bideoa egin dau Errotak

Erredakzioa

Errota, Arratiako Garapenerako Fundazioaren idea baten oinarrituta, Arantzazuko Balea Musika Ideiak enpresek bideo bat egin dau Lanbide Heziketan oin arte maskulinizauta egon diran ikasketetan nesken presentzia handitzeko. Horretarako, Arratiako Udalen Mankomunitatea (AUM) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzak jaso dabez.

Bideoa Zulaibarren grabau

dabe bertako ikasleakaz. "Automozinoko neska bat eta Elektrizidadeko beste neska bat alkarrizketatzen dira, baita irakasle bat be" azaldu deutso BEGITURI Iratxe Goikoetxea Errota Fundazioa. Eta Zulaibarreko ikasleak eskualdeko enpresetan egiten dabenez euren ikasketen zati bat, Arratiako hainbat enpresatan be egon dira bideoa grabetan. Izan be, "Zulaibarren ikasi ondoren, ibilbide naturala eskualdeko enpresetan lan egitea da".



ARRATIA

Udan hilean behin aterako da BEGITU

Erredakzioa

BEGITU hamabostekariak, 22 zenbaki ateraten ditu urtean, beharginak oporrak hartu ahal izateko. Hau da, garagarriean eta abuztuan, hile bakoitzean, zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasierakoa. Aurten be holan izango da, eta garagarriaren eta abuztuaren hilaren erdiko zenbakirik ez da egongo. Hurrengo zenbakia beraz, abuztuaren 3koa izango da.

Urri lehenengoan, barriro be, hamabostero izango da BEGITU Arratia, Ubide eta Zeberioko etxeetan.

DIMA

Enpresa txiki eta autonomoentzako dirulaguntzak onartu ditu Udalak

Erredakzioa

Bagilaren 15eko osoko bilkuran dirulaguntzak onartu ziran COVID-19aren ondoriozko alarma egoerea dala-eta, euren jarduna eten behar izan daberen enpresa txiki eta autonomoentzat. Horretarako 25.000 euroko diru partidea aurreikusten da.

Eskariak garagarriaren 9ra arte egin daitezke eta eskatzaile bakoitzak gehienez 1.000 euro jasoko ditu.

Diruz lagunduko dira negozio lokalaren alokairua edo-eta hipotekea, gizarte segurantzia, ura, gasa eta elektrizitatea eta beste gastu batzuk, jardueraren etenak be pagau behar izan diranak. Autonomoak eta enpresa txikiak 150 euroko konpensazioa jasoko dabe jardueraren eten epe osoan eten behar izanagaitik, edo 50 euro asteko. ABEEn dagozan enpresentzako 200 euroko dirulaguntza dago.

ARRATIA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dira garagarriaren 12an



Erredakzioa

Garagarriaren 12an egingo dira apirilaren 5ean egitekoak ziran Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak eta ezin izan ziranak

egin COVID-19a dala-eta konfinamentua ezarrita egoalako. Hauteskundeotan 18 alderdi politiko egongo dira lehian: 12 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan aurkeztuko dira, 5 hautesbarruti

bakarrean eta 1 bitan.

Eusko Jaurlaritzako iturriak jakinarazoz dabenez, EAeko hiru lurraldeetan aurkeztuko diran hautagai-zerrendak, EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos, PP+Cs, PACMA, Aulki Zuriak, Equo Berdeak, Vox, Bidezko Mundurantz (PUM+J), Recortes Cero Los Verdes (Recortes Cero LV) eta Libres por Euskadi alderdietakoak dira.

Gainera, bost hautagai zerrenda lurralde historiko bakarrean aurkeztu dira: Ongi Etorri (Araba), Alderdi Humanista (Bizkaia), Unión Cristiano Demócrata Española (Gipuzkoa), Euskadiko Langileen Alderdi Komunista (Bizkaia) eta Alderdi Libertarioa (Gipuzkoa). Azkenik, Foruzaleak alderdia Arabako eta Bizkaiko hautesbarrutietan aurkeztuko da.

Bertan behera itxi ziran apirilaren 5eko hauteskundeetarako aurkeztu ziran hautagai-zerrenda berberak aurkeztu dira oingoan be. Salbuespen bakarra Partido Libertario-Alderdi Libertarioa da, oin Gipuzkoan

aurkeztu dana eta apirilko hauteskundeetarako ez zana aurkeztu.

Legebiltzarraren osotuko daberen 75 legebiltzarkideak hautatzeko 1.788.602 personak emon ahal izango dabe botoa.

Osasun neurriak

Eusko Jaurlaritzak hainbat osasun neurri zehaztu ditu hauteskundeetan, COVID-19agaz kutsatzea saihesteko. Holan, beste batzuen artean, hauteskunde mahaia osotuten daberen personaren artean, segurtasun tartea (1,5 metro) gorde beharko da, baita botoa emoten joaten diran personaren artean be.

Boto zenbaketan, segurtasun tartea ixtea, maskara erabiltea eta eskuak sarri garbitzea gomendatzen da.

Arratiarrak

Legebiltzarrerako hautagai zerrendetan, EAJ-PNVren zerrendan, Maitane Ipiñazar Miranda igorretarra, bosgarren dago.

belagorri

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzari elkagaiak
estefiziana

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56

L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Goider 666 58 20 06

Puzetta polygonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

Kili-Kili

Amigo eta Puzetutako

Lehendakari Agirre 10 - 48088 (Mikolo)
Tel.: 94 672 43 81

AREATZA, LEMOA

ZEBERIO

Areatza eta Lemoako ugerlekuak zabalik egoera barrira egokituta



Lemoako ugerlekuak.

Erredakzinoa

Garagarriaren 1ean zabaldu da bez ugerlekuak eta abuztuaren 30ean zarratuko dabez Areatzan eta 31n Lemoan. Pizinetara bonoagaz bakarrik sartu ahal izango da: ez da eguneko sarrerarik salduko. Erreserba bezperan egin behar da eta goizeko edo arrastiko txandea aukeratu. Egun berean ezingo da joan goiz eta arrastiz.

Hainbat neurri hartu ditue Areatza eta Lemoako Udalak, pizinen erabilera COVID-19ak eragindako egoerari egokitzeko. Aforoak murriztu egin ditue eta distantzia neurriak eta higie neurriak handitu. Holan, berbarako, aldagelak eta armairuak zarratuta egongo dira.

Areatzan, hamakak erabiltea galazota dago, sartzeako maskarea ipinita joan beharko da bakotxari jagokon lekura heldu

arte eta sarreran hidrogela hartu eta temperatura hartuko jakie erabiltzailei. Tabernea ez da zabalduko.

Aforoari jagokonean, Areatzako berdegunean, gehienez 280 espazio egongo dira. Uretan, ugerleku txikian 40 ume gehienez eta handian 50 persona batera egon daitezke. Lemoako instalazioetan barriz, 224 persona egon daitezke; ugerleku txikian 7 ume eta jagoten dauan persona nagusi bat ume bakotxeko. Ugerleku handian 75 persona egongo dira gehienez. Uretan ezin da egon ordubete baino gehiago.

Espazioak markauta Areatzan

Areatzako pizinetako berdegunean, espazioak markauko dira eta bakotxean, bizikidetzatza unidade bat egongo da. Zirkulu honeetako eukieria gehienez 4 personakoa izango da, baina bost kideko familiak espazio handia-

goak izango ditue.

Espazio batetik bestera joateko maskara jantzi beharko da eta berdegunean olgetan egitea galarazota dago. Ugerleku ertzean egotea be galarazota dago eta umeak jagoten dagozan helduak ugerleku barruan egon beharko dira. Uretan ezin da pelota edo jostailurik sartu.

Edadekoak erreserba takillan

Denporaldi osorako abonoa erosi beharko da eta joan gura dan egunaren bezperan hartu txandea. Txanda bakarra hartu ahal izango da egun bakotxean, goizez edo arrastiz. Areatzan abonoa egiterakoan helbide elektronikoa emon behar da eta hara bialduko dabe txandea hartzeako pasahitza. Lemoan Udalaren webgunean egin behar da erreserba eta emailaz jasoko da baieztapena. 65 urtetik gorakoak txandea lehiatilan eskatu daikie.

Gizarte arazoai erantzuteko sortu dabe Batu Elkarlaguntza Sarea

Erredakzinoa

Zeberioko hainbat lagunek, Hego Uribe eskualdeko beste herri batzuetako kideakaz batera Batu Elkarlaguntza Sarea sortu dabe. Helburua, krisi honek eragin dituan gizarte arazo larriai erantzuna emotea da, ikuspegi feminista batetik.

"Garai ilunak" datozala uste dabe alkarteko kideak: "2008ko krisiaren golpea asimiletan gegozan honetan, krisi barria dogu ate joka eta esperientziak erakutsi deusku nok ordaintzen dituan kalte ordainak, herri langileak hain zuzen". Gauzak holan, bide bakarra antolakuntza dala dinoe, "herriak bakarrik salbau daikelako herria".


Horregaitik, mundu justuago

bat eregi gura dabe, klase egitura, patriarkadua eta errazismoa gaindituta; horreek dira-eta, arazo sozialen oinarria.

Etxea eta jana

Lantalde bik landuko ditue ildo nagusiak: etxea eta elikadura. Etebizitza sareak laguntza eskaintzen deutse alokairua edo hipotekea ordaindu ezin dabenai, baina baita tratu txarrak jasoten dabezanai be. Jatekoa eta oinarriko produktuak ordaindu ezin dabezanai lagunduteko barriz, Subete Elkartasun Biltegia sortu dabe.

Eurekaz hartu-emonetan jartze-ko batuelkar@gmail.com helbidera edo 654 821 486 telefonora deitu daiteke.



ZURE ZERBITZURA

Avia guztira 192 gasolindegia
Avia Adenor 35 gasolindegia

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

Explanada Punta Ceballos z/g
48508 Zierbena (Bizkaia)
Tel. +34 944 130 159

Banaketa
Berogailuetarako
gasolio zerbitzua

GURE BIHOTZA

Operazio zentroa
Bilboko Portu Autongmoan

COVID-19A EUSKAL HERRITIK KANPO (II)

Errenta mailak markautako itxialdiak

Arratian, alarma egoeratik urtenda gagozanean, beste herrialdeetan zenbateroinoko konfinamentua eta ze egoeratan dagozan jakin gura izan dogu eta kanpoan bizi diran arratiarrak kontau deuskue euren esperientzia. BEGITUREN aurreko zenbakian, Erresuma Batua, Irlanda, Alemania, Frantzia eta Mexikon hartutako neurriak azaldu ebezan herrialde horreetan bizi diran hainbat arratiarrek. Oingoan, Lemoako Irune Garciak Maltako konfinamentuaren barri emon dau; AEBkoaren barri, Eider Etxebarria lemoaztarrak eta Itxaso Goikoetxea zeanuriztarrak; Ander Basilio igorreztarra Gambian harrapatu eban pandemiak eta Aimar Iturriondobeitia dimoztarrak Australiatik idatzi deusku, hango egoerearen bere bizipenak kontetako.



Irune Garcia.

Erredakzioa**Konfinamentu goiztiarra Maltan**

Lemoako Irune Garcia, Maltako Zejtun herrian bizi da eta apustu etxe bateko kontabilidate buru (*Head of Finance*) lanetan dihardu. Zejtun Malta hegoaldean dagoan herri bat da, 11.000 biztanle ingurukoa.

Agintariak etxean geratutea agindu baeutseen be, konfinamentua ez dala osoa izan dino Lemoakoak "Posible izan da 3 edo 4 personako taldeetan kanpora urtetea. Honek hainbat aukera emon deuskuz. Adibidez, bizikletan ibiltzen edo korrika egiten urteteko aukerea" azaldu eutsan BEGITURI bagilaren 13an.

Martia hasikeran hasi ziran neurri nahiko zorrotzak hartzean. Aireportua itxi eta kanpotik etorritakoak 15 eguneko berrogeialdian ipini, barbarako. Eskolak be itxi egin ebezan eta ikasturtea bertan behe-geratu da. Gitxieneko zerbitzuak bakarrik egon dira zabalik. "Hau guztiau COVID-19 kasu oso gitxi-gaz eta hildako bat be ez egoala izan zan. Gobernuak arin erantzun ebala esango neuke. Ospitaleak ondo prestatuta egozan eta ez dira kolapsau". Gainera, Maltako gobernuak atoa aurkeztu ebazala autonomoentzako eta enpresentzako dirulaguntzak azaldu dau Garciak.

Bere lanean, bulegoa itxi eta etxetik lan egiten hasi ziran martiaren hasikeran. "Gure enpresek opatzen dauzan zerbitzu guztiak

online dira, ez dago denda edo lokal fisikorik. Hori dala eta, gu oso ohituta gagoz etxetik lan egitera eta posible izan da lanpostu guztiak ezelango arazo barik mantendutea. Lan egiteko behar dodan gauza bakarra ordenagailua eta wifi konexinoa da. Hori bai, esango neuke azken hile honeetan inoz baino lan gehiago egin dogula. Etxean egonda, gatxagoa da lan orduak eta denpora libre bereiztea".

Aisialdiari jagokonean be, dana itxitia egon da, gitxieneko zerbitzuak izan ezik. Garciak, etxean kirola egiteko, irakurteko eta ezer egin barik egoteko, aprobetxau dau eta bere konfinamentua, "oso baldintza onetan" izan dala dino.

Bagilaren 5ean, "bizitza normalera" bueltatu ziran, "baltzetik zurira, lar arin" Lemoakoaren ustetan. Itxialdiaren ostean, jentea zerbitzu publikoen garrantziaz jabetutea espero dau "ez daitela dana geratu 20:00etako balako txaloetan".

AEBko Illinois eta Oregon-en neurri desbardinak

AEBn estadiak hartzean dabez konfinamentuaren gaineko ebaztiak eta, herrialdearen egoerea larria izan arren, aldea dago estadi batetik bestera. Illinoisen berbarako, neurririk gogorrenetakoak hartu dabezala inoan Eider Etxebarria Zuluaga lemoaztarrak bagilaren 22an; Oregonen, barriz, konfinamentua ez dala hain gogorra izan adierazo eban Zeanuriko Itxaso

Goikoetxeak bagilaren 12an.

Eider Etxebarria Zuluaga 2014an joan zan AEBra, masterra eta doktoretza egitera. Elebitasunaren jabeakunza prozesua umeengan ikasten dau. Champaignen bizi da eta University of Illinois at Champaign-Urbanan euskal kultura eta gramatika, gaztelania linguistika, eta kognizino eta elebitasunaren inguruko beste hainbat irakasgai irakasten dauz.

Champaign 90.000 biztanleko herria da, Chicagotik 200 kilometro ingurura dagoana. "Leku zoragarria da, eta ikusgarria; aldi berean lasaia eta alaia. Batez be ikasleentzat dago prestatuta: liburutegi asko 24 ordu zabalik dagoz eta kafetegi eta gimnasioak gau erdirarte. Astegoien-ero dago merkaduren bat, festibalen bat edo arte, musika, edo antzerki emonaldiren bat. Mundu guztiko janak topau daitezkez hemen, baina batez be Mexikokoak. Herriatik urten eta arto sail itzelak ikusten dira kilometro eta kilometrotan" deskribidu dau Etxebarriak.

COVID-19a dala-eta, Illinoisen, eskola, ofizina, jatetxe eta komertzio guztiak itxita egon dira martiaren erdikaldetik bagilaren 1erarte. Ha-ta guzti be, garraio publikoak beti martxan segidu dau eta paseoa urteteko "ez dogu inoz arazorik euki" dino Lemoakoak. Bagilaren 1etik aurrera barriz, eskolak ez, baina komertzio guztiak zabaldu dabez barriro. "Tabernetan, terrazetan bakarrik egon leiteke, eta gainontzeko komertzioetan, super-



Eider Etxebarria Zuluaga.



Itxaso Goikoetxea alabeagaz.

merkadu eta ule-apaindegietan, barbarako, maskarakaz bakarrik sartu daiteke. Hondartzak itxita dagoz baina parke naturalak zabalik. Oin ardurarik handiena unibersidadeak noz eta zelan zabaldu da".

Izan be, horrexek dauka eragirik handiena arratiararen egunerokotasunean. Bere beharragaitik, New York-en, edo Kalifornia edo Texaseko uri handietan berbaldiak emoten dauz, baina "momentu honetan, ez da segurua Champaignetik urtetea, batez be estadi askok ez dabezalako ezelangoko neurririk hartu pandemia kontrolatuko". Gatxena sozializetako alternatibak topetea izango dala uste dau, "etxeetan batzean hasi gara talde txikerretan, baina jente asko oindino ez da animetan tabernatara joaten gaixotuteko bildurrez".

Honeek guztiak panorama txarra itxi dauala uste dau. Izan be, miloeka persona langabezian dagoz, negozio askok ezingo dabez barriro atek zabaldu, familia asko miseria gorrian bizi dira eta osasun sistemeak ezin dauz gaixoak hartu. "Krisi itzela dator eta urte oso-oso gogorak. Merkadu laborala, leituta dago".

AEBko Oregon estadien bizi da Zeanuriko Itxaso Goikoetxea, Beaverton izeneko urian. Beavertonek 2.100.000 biztanle inguru ditu. Portland metropoliaren parte da eta, beraz, uria non hasten dan eta non amaitzen dan ez da igartzten. Erdigunea dauka, herri leze eregi zalako hasikera baten, baina Estadi Batuetako herri askotan moduan, etxebizitza gehienak auzoetan egoten dira.

Itxialdiak aldatu egin dau arratiararen egunerokotasuna. Izan be, 3 urteko umea dauka eta oindino eskolara joaten ez dan arren, pandemiaren aurretik "klase batzuetara joaten ginan edo umeak daukiezan lagunak alkartuten ginan astean zehar. Astegoienetan Portlanden edo estadiuko parkeetan ibiltzen ginan. Baina oin ez dago klaserik eta lagunak oso gitxitan ikusi doguz, baina bagabiz apurka-apurka barriro alkartuten. Parke asko be itxita egon dira konfinamentuan, oin zabaldu dabez batzuk. Halanda be, etxean eta auzoan ibiltzen gara gehienbat oindino", azaldu eutsan BEGITURI Goikoetxeak bagilaren

12an. Orduan, Portland itxialdiaren 1. fasean egoan. Bagilaren 15ean eskualdeko agintariak, estaduko gobernuari 2. fasera pasetako eskaria egitekoak ziran eta onartu ezker, bagilaren 22an pasauko ziran bigarren fasera.

Oregon eta Portland-en, muga egiten daben beste estaduetan, -Washington eta Kalifornia- baino kasu gitxiago egon dirala dino, baita EAEn baino gitxiago. Izan be, bagilaren 12an, lau miloe baino biztanle gehiagoko Portland-en 500 kasu inguru eta 171 hildako egozan, arratiarraren arabera. "Oso hasikeratik zarratu ziran tabernak, eskolak, eta abar eta etxetik behar egiteko aukerea askok euki dabe".

Konfinamentua ez dala izan hain gogorra dino Zeanurikoak, kanpoan ibili ahal izan diralako distantziak gorde ezker. "Hemen jentea bakarrago eta eremu zabalagoetan bizi da eta ez da izan hain gatxa besteakaz kontaktorik ez eukitea, aldaketa handia izan bada be". Dana dala, martiaren amaieran Euskal Herrira etorteko asmoa bertan behera itxi behar izan eben. "Familiakoak be, etortekoak ziran garagarriean edo abuztuan, baina ez dira etorriko".

Goseari bildur handiagoa Gambian

Ander Basilio igorreztarra Gambian

harrapatu eban COVID-19aren pandemiak; Afrikako kosta irribarratsuko Bijilo herrian, hain zuzen be. Bijilo, Banjul uriburutik ordu erdira dagoan kostaldeko herri txiki bat da, bizi-bizia eta azokaz betea. Kosta zati hau Gambiako zonalde turistikoena da.

COVID-19aren aurretik bizimodu guztiz normala egiten ebala dino Basilio "Arratian modukoa", baina "birusa etorri zanetik erosketak egitera bakarrik urten naz, segurtasun neurriak hartuta, eta haize apur bat hartzeako bakarrik egon ahal zaran hondartzaren batera" joan dala inoan bagilaren 18an.

Konfinamentuari jagokonean, teoriar konfinamentua egon arren, praktikan inork ez daukala bete dino. Espainian baino aste bat beranduago dekretau eben eta turista guztiak bueltau eta mugak zarratu ebezan. Izan be, Gambia Senegal herrialdeak inguratuten dau eta Senegal izan da oin arte Afrikako leku

kaltetuenetariko bat.

"Lehenengo egunetan jentek bildurra eukan; negozio eta merkaduak, danak zarratuta, bideak kotxe barik, jentea maskarakaz erosten, hondartzak zarratuta, produktu askoren faltea eta polizia gogor antzean. Baina, mobiduten ez badira ez daukie ahora zer eroan, beraz, merkadu eta denda lokalak atoan hasi ziran funtzionetan, ezelango segurtasun neurri barik eta metro t'erdia errespetau barik. Arrantza portu eta merkaduetan alkarren ondoan dabiz eta transakzino guztiak billeteakaz egiten dira. Goseari bildur handiagoa daukotsie COVID-19ari baino" azaldu deutso BEGITURI Basilio. Zurien negozioak bakarrik segiduten dabela zarratuta dino.

Bagilaren 18ra arte, guztira 34 positibo egon ziran eta hildako bakarra, baina 1.800 bat test egin ziran bakarrik. Izan be, klinika bakarra dagoala test honeek aurrera eroateko dino Igorrekoak. Dana



Ander Basilio.



Aimar Ituriondoibeitia.

dala, Gambian hain kasu gitxi ego- tearen errazoa ez dago argi, baina ebolarik be ez zan egon bere egu- nean.

Bagilaren amaieran, larrialdi egoerea amaitutzat emotekoa zala eta hegazkin batzuek bertan har- tuko ebela lur esan eban Adama Barrow Gambiako presidentek.

Testak hasikeratik Australian

Aimar Ituriondoibeitia dimoztarra heldu barri zan Sydney-ra, COVID-19a agertu zanean. Sydney New South Waleseko uriburua da eta 5 miloe baino biztanle gehiago daukaz. Dimoztarra, Bondi Beach izeneko auzoan bizi da, 11.000 biztanlekoa eta Sydneyko hondar- tzarik ospetsuenetarikoa dago han.

Ituriondoibeitia 15 egunez egon da etxetik urten ezinda. "Etxe ba- rri batera sartu nintzan biziten eta egun bi pasata pisukide batek

positibo emon eban COVID-19ko testean. Hamabost eguneko kon- finamentua egin genduan, baina etxean 6 persona izanda nahiko ondo pasau zan dana" azaldu deutso BEGITURI.

Berak azaldutakoaren arabera, Sydney-n konfinamentua ez da derrigorrezkoa izan, "baina jente asko alkartzen ziran lekuak, zarratu egin dabez edo neurriak hartu; ja- tetxeak, berbarako, bakarrik janaria eroateko egon dira zabalik. Kalera beti urten ahal izan da, kirola edo erosketak egiteko".

Apurka-apurka gauzak hobetu- ten joan dirala inoan dimoztarrak bagilaren 22an. "Hasikera batetik testak doban egiten ziran, etxeko errentak prezioz bajatu ziran eta behar izan ezker janaria be de- balde emoten dabe". Garagarri- ren 1etik aurrera, "ohiko modura" bueltauko dirala espero dau.

merezi
duzun
herria

ehbildu



maddalen

ZURE LEHENDAKARIA

PELOTEA

Amaia Alday pelotari dimoztarrak ETB1eko Plazandreak pelota saioan parte hartuko dau

Saioa garagarriaren 3tik abuztuaren 27ra bitartean izango da eguenetan, andrazkoen eskupelotea ezetuten emoteko. Hamabi pelotarik hartuko dabe parte, lau taldetan.

Amaia Aldayk, Iera Agirrek eta Arrate Bergarak osotuten dabe taldeetako bat. Euren prestatzailea Mikel Inuntziaga kantaria izango da. Telebista saioa, Iñigo Aiestaranek, Elena Azpeitiak eta Gentzane Aldaik gidatuko dabe.

Astero hiru partidu jokatuko dabe pelota mistoa erabiliz: lehenengoa eskuz banaka, gero binaka eta azkenean beste banakako partidu bat. Eguenero talde bi neurtuko dira eta hiru puntu egongo dira jokoan.

Erredakzioa

ETBko Plazandreak saioan ikusiko zaitugu udan.

Udako txapelketa barri bat da, ETBk Iker Amarikari, Emakume Master Cup-eko antolatzaileari, proposatu eutsan idea eta hortik ebatzi zan txapelketa bat egitea telebistako saio bategaz. Txapelketa honetako parte hartzaileak Amarik aukeratu ebazan.

Partiduak zuzenean izango dira?

Bai, jardunaldi bakoitzean hiru partidu jokatuko doguz eta zuzenean grabatukoak izango dira.

Lau taldetan zagoz 12 pelotari. Zu, Iera Agirre eta Arrate Bergara, Mikel Inuntziaga prestatzaileguz zagoz. Zein izan ziran taldeak? Zein izan zan erispidea?

Taldeak txapelketako antolatzaileak osotu ditue, eta erispide bakarra izan da ahalik eta talde orekatuenak osotea partidu politak urten daitezkan. Bai leragaz bai Arrategaz jokatuz dodaz partiduak. Arrate Bergara txapelketa gehiagotan izan dot bikotekide, baina taldekide biakaz konpontzen naz ondo, eta uste dot talde polita daukagula maila ona emoteko.

Mikel Inuntziaga abeslaria da, baina gaztetan pelotan jokatzen eban.

Partiduak liga moduan jokatuko dira? Zein da zure ustez izango dozuen aurkaririk gogorrena?

Partiduak ligaxka moduan jokatuko dira, hau da, talde guztiak lehiatuko dira talde guztien kontra. Nire ustez talde gogorrena Olatz Arrizabalagak, Irantzu Etxebestek eta Nora Mendizabalek osotuten dabena da. Txapelketa hau polita dala uste dot eta horregaitik esperientzia barri hau disfrutatuko asmoagaz goaz, eta ahal bada irabaztera, beinke!

Zeintzuk dira zure taldearen alderik onenak?

Uste dot nire taldea polita dala, azkenean badaukagu beterana dan pelotari bat, esperientzia daukana eta horrek Arrateri eta niri lasaitasuna transmitidu ahal deusku eta aprobetxau beharreko gauza bat da. Bestalde, hiru aurrelari gara baina bai Arratek eta bai nik atzean jokatuz geinke, eta banakako partiduetarako errazagoa da aurrelariak izanda. Beraz ondo konpondu ahal gara taktikak pentsetarakoan.

Zer iruditzen jatzu ETB1ek saio hau emotea udan?

Gauza barri bat da eta azken urteetan biziten gabizana amets bat da. Izan be, batzuek pelota itxi behar izan genduan andrazkoak izategaitik eta oin egiten dabizkan

lana andrak barriz zuriz jantzi eta frontoira aterateko ikaragarria da.

Gainera telebistan agertu ahal izatea aukera ezin hobea da andrazkoen pelotea hobeto ezetuteko eta erakusteko gai garala pelotan ondo jokatzeke. Saio honek bidea egiten lagunduko deusku eta apurka-apurka holango aukerak aprobetxauz andrak pelotan gehiago ikusiko dira, eta gure helburuetako bat lortzean lagunduko deusku. Hau da, ahalik eta txapelketa gehiago jokatzen, baina batez be txikitatik jokatzen daben neskai jokatzeke aukerea bada-goala erakusteko, jakitun egon daitezkan pelotea ez dabela itxi behar andra izategaitik eta bada-goala guretzako txapelketak be.



PELOTEA

Zeanuri eta Dimaren arteko pelota desafioa

Erredakzioa

Dimako Txumuluxueta eta Zeanuriko Joko Alai pelota eskolak Mugarri Pelota Desafioa antolatu dabe garagarriaren 11rako. Zeanuriko plazako frontoian izango da 18:00etatik aurrera, eta hiru partidu jokatuko dira: buruz buruko frontoi osoan, bikoteka, eta buruz buru lau t'erdian. Partidu bi irabazten dauzan klubak irabaziko dau desafioa.

Partiduetan zehar kinielak jokatuz ahal izango dira eta asmatzaileak, otzara bat eroango dau saritzat.

Dima eta Zeanuriko pelota klubak

Ekhi Ziarrusta Txumuluxuetako pelotari eta entrenatzailearen ustez esku pelotearen egungo

egoerea onena izan ez arren, Arratiako pelota eskolak behar itzela egiten dabiz "umeengan kirolerako joerak sortuz, gurea dan kirol bateri indarra emonaz eta beregan daukazan baloreak herriko txikienei transmitiduz".

Gaur gaurkoz, Txumuluxueta taldean 47 dira izena emonda dagozan pelotariak eta Joko Alai pelota klubean, 40. Dima eta Zeanuri herri txikiak izanda, argi dago presentzia handia daukiela. Federatu mailan lorpen handiak izan ditue klub biak. Dimakoaren kasuan, jokamolde desbardinatzen jokatuten daben pelotariak osotutako taldetxoak daukie eta Zeanurin, atzen urteotan "talde ikaragarria" daukiela erakutsi dabe. Zeanurik Herriarteke azken txapelketa irabazi eban.



Ekhi Ziarrusta eta Iñigo Atutxa.

FUTBOLA

Iker Bilbao eta Luis Prieto dimoztarrak Leioa futbol taldeko entrenatzaile

Erredakzioa

Bagilaren 3an, Leioa futbol taldeak jakinarazo eban Iker Bilbao Zubero dimoztarra izango dala lehenengo taldeko entrenatzailea eta lan hori, kirol zuzendari lanak bateratuko daua.

Aspalditik dauka loturea Dimakoak Leioako futbol taldeagaz. Izan be, 2012-2013 denporaldian jokalaria izan zan eta atzenengo bost urteotan bigarren entrenatzailea. Lehenengo taldeko idazkari tekniko be izan da atzenengo urte biotan.

Iker Bilbaoren aurretik, Jon An-

der Lambea zan Leioaren lehen taldeko lehenengo entrenatzailea. Leioa futbol taldeak Bigarren B mailan jokatuten dau.

Luis Prieto bigarren entrenatzailea

Iker Bilbaogaz, bigarren entrenatzaile moduan, Luis Prieto Zalbidegoitia dimoztarra egongo da bere talde teknikoan. Prietok futbol jokari ibilbide luzea dauka elite futbolari moduan; Athletic, Eibar, Valladolid, Ponferradina eta Alaves taldeetan jokatuz dau eta Athletic-eko harrobiko entrenatzaile moduan jardun dau atzenengo bost urteotan.



Mapak eskuan, mendian orientetan ikasi eben Arraban hainbat lagunek

Gorbeia Parke Naturalak antolatu eban jardueria Iñigo Ramos Arteakoaren laguntzeagaz. Bagilaren 20an, 40 bat lagun batu ziran Arrabako landetan, mapea eskuan, balizak topetan. Eguraldiak lagundu eban eta plazak mugatuak izanda, egon zan, egin ezin izanda geratu zanik be.

Erredakzioa

Bigarren aldia da Parke Naturalak jarduera hau antolatuten dauana. Oin dala urte bi be antolatu eben orientazioa mendian. Orduan 18 lagunek hartu eben parte eta oingoan 40k emon eben izena. Orientazio probetan, partaideak hainbat baliza topau behar izaten dabez mapa batez lagunduta. Bagilaren 20koa, ordu bi inguruko proba izan zan eta zati bi eukazan: Pagomakurretik Arrabako landetara 5 baliza topau behar ziran eta Arrabako landan beste hamar.

Denporak kontuan hartu bari

Orientazio probak partaide mota bi izaten dituela azaldu deutso Iñigo Ramos antolatzaileak BEGITUri. Alde batetik adituak dagoz, orientazio proba guztietan parte hartzean dabenak, eta bestetik, mendian orientetan ikasi gura dabenak. Batez be bigarren motatakoak izan ziran Arraban egon ziranak. "Etorri ziran parketxeko aldizkaria jasoten dabenak eta normalean jarduera horreetara joaten diranak. Gehienak orientazioa inoz egin bakoak izan ziran: familia batzuk, ume nahikotxo... guztira 40 persona". Helburu

nagusia mapa bat interpretetan ikastea zala eta ez zirala denporak kontuan hartu dino Ramosek.

COVID-19a dala-eta, azalpenak taldeka egin ziran. Urtekera be bai, orientazio probetan ohikoa dan legez.

Artean urtero

Ez da Arratian egiten dan orientazio proba bakarra. Urtero Artean, AKKT alkarteak be antolatuten dau Gabonetan proba bat nahiko ezaguna dana. "Hamarhamabi urte izango dira egiten dogula frogatzen hori. Historikoa da. Horretara Bizkaia osotik etorten dira eta kanpotik be bai. 200 bat

persona eukiten doguz".
Cobi Bizkaiko Orientazio Klubagaz be kolaboretan dau Iñi-

go Ramosek eta eurekaz urtean probaren bat edo bi antolatuten dauz.



Orientazio probako partaideak.



**arratia
ubide
zeberio**

BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako ballabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik **Areatzako Bainuetxean** lagun birentzako zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

MUSIKEA

Fran Urias: "Kontzertu bat publiko barik ez da kontzertua"

Bagilaren 13an, Hesian taldeko Fran Urias eta Zuriñe Hildagok kontzertua emon eben lemoakoudala.nirestream.com plataformaren bidez. Itxialdiaren osteko lehenengo kontzertua izan zan.

Erredakzioa

Fran Urias (Etxarri-Aranatz, 1985) Lemoan bizi da oin dala urtebete inguru. Hesian taldeko sortzaileetako bat da. Hasikerako taldetik geratzen dan bakarra tronpetajoleagaz batera eta taldean gitarrea jo eta abeslarietako bat da. Bizimodua Historiako irakasle lanetatik ateraten dau.

Bagilaren 13an Zuriñe Hildagok kontzertua emon zenduan Lemoako Udaleko nirestream plataforman. Zelan izan zan esperientzia hori?

Esperientzia berezia eta oso desbardina. Ze azken finean, zuzeneko da baina ez da zuzeneko: kamarak daukazuz aurrean. Urduritasuna zuzenekoaren parekoa edo gehiago izan zan. Ze, zuzenekoan interakzioa dago eta gainera zeozer txarto urteten bada momenturen baten, jentea ez da konturatzen: pasau egiten da, ez da geratzen grabauta. Kasu honetan bai, ostera. Eta akaso egongo da baten bat pare bat aldiz entzun dauana kontzertua eta bigarren aldiaren esango dauana: "hor eskua joan jako, edo afinazioa...".

Esperientzia legez oso arraroa izan da. Jentea baegoan, 7 lagun, langileak; soinu eta montaje teknikariak eta abar. Ba eskerrak horreek egozala, nonori berba egiten geuntsala sensazioa eukiteko! Ezpabere kamara bateri, hotza da.

Moldatu egin beharko gara ze batek daki zenbat irauango dauan honek!

Era honetako kontzertuak zelan baloretan dozuz?

Alde batetik, streaming bidezko kontzertuak salbuespen egoera honetan urtenbide txiki bat izan daitezke. Baina kontzertu bat publiko barik, ez da kontzertua. Akaso kontraesana emongo dau baina espero dot formatu horrek ez eukitea etorkizunik. Beharrezkoa da musika zuzenean izatea, publikoa hor egotea. Akustikoan batez be, publikoagaz interakzioa handia izaten da. Kasik-kasik berba egiten dozu publikoagaz eta hori barik... Beste zuzenekoetan, talde moduan emoten doguzanetan interakzioa ez da hain handia.

Espero dot hau ez luzatzea la-



regi eta ez egotea halakoak egiteko beharizanik. Ha-ta guzti be, eskertuta nago eta pozik. Beinke!
Akustikoak Zuriñe Hildagok egiten dozuz. Biok zarie Hesian taldeko abeslariak, ezta?

Bai. Hesian 2006an sortutako pop-rock taldea da. Adar asko ditu: ska apur bat egin izan dogu, hasikeran rockeroago zan, inkusore hardcore ikutu bat be euki eban, baina pop-rock taldea dala esan leikegu. Zortzi disko daukaguz kalean; estudioko 7 eta zuzeneko bat, DVD bat. Kontzertuak jagokienean, 300 baino gehiago.

Zazpi kidek osotuten dogu taldea, 8 be izan gara. Hesian-en ezaugarri esanguratsua izan daiteke rock talde bat izanda haize-instrumentuak daukaguzala eta saiatzen gara, ez erabilten ohiko moduan, hau da ska estiloan. Beste ezaugarri bat da mutil eta neskaren abots konbinaketa hori, hasikeratik euki doguna.

Oin dala 10 urte inguru, hasi ginan egiten beste formatu bat, akustikoa Zuriñe eta biok. Oso pausu naturala izan zan, taberna txikietan edo aurrekontu txiki-gokoai erantzuteko. Hasi ginan egiten, ondo moldatzen ginan eta ondo ateraten zan. Baina lehentasuna beti da taldea.

Baina egoera honetan be talde moduan joteko 0 aukera dago; akustikoan, barriz, zeozer. Lemoakoa, esate baterako.

Eskertu gura dot Lemoako Udala, egin dogun lehenengo kontzertua hori izan dalako. Alarma egoeratik ateratzean, lehenengo. Egin genduan kontzertu bat lfa-

terietan Sopelan eta hortik gitxira hasi zan egoera hau.

Zelan jatortzue uda?

Geunkazan kontzertuak airean geratu dira. Danak ez dira bertan behera geratu oindino, abuztu-irailean daukaguzan batzuk esaterako, baina ez daukie itxura onik. Itxura guztia daukie bertan behera geratuko dirala.

Dana dala, datorren astean, Mungian, azokatxo bat antolatu dabe eta ni neu be joango naz, formatu akustikoan. Baina bueno, ez dot ezta kontzertutzat jotzen be. Disko azoka txiki bat da, jenteagaz egotera noa.

Momentuz ez daukagu beste ezer. Proposamenak hasi dira heltzean, batez be Lemoako kontzertuaren harira eta hor egin dan publikidadeagaz edo, proposamen batzuk egon dira. Oindino ez daukagu ezer lotuta. Orduan, panoramea...

Zorionez, taldean gagozanok beste lan batzuk daukaguz eta ez gara musikatik bizi. Musika, diru aldetik izan daiteke estra bat, baina ez gara horretaz bizi eta ez gagoz horren menpe. Kontzerturik ez badago jatekoa ez jaku faltako.

Beste batzuen kasuan gogorragoa izango da. Batez be, musikearen inguruko beste sektore batzuetan: teknikariak, disketeak, produktorak... Horreek bai dagozala txarto. Jente hori horretara dediketan da eta normalean horretara bakarrik, behar handia dalako.

Hortik dator esaldi famadu ha, ez dakit nork esan ebana: "musikatik biziteko egin behar dozun gauzea da, musikaria ez izan".

EKINTZAK

Gaztetxeak ekin deustie kultur ekintzai

Erredakzioa

Konfinamentuan eta "normaltasun barria" deitutako honetan ezarritako neurriak, suntsitu egin dabe panorama kulturala. Jai, jaialdi eta ekitaldi gehienak bertan behera geratu dira, eta antolatu diranak, hainbeste neurrigaz guztiz desitxuratu, kasu askotan. Panorama horregaz, kultura programazino barik, kulturatik bizi diran artista eta profesionalen egoera, larria da. Akaso horregaitik, langile honeen bizimodua ateratzeko eskubideari eta jentearen, batez be jente gaztearen, musika, arte eta kirol egarriari urtenbide bat emateko, Gazte Asanbladak kultur egitarauak prestatzeari ekin deustie.

Antzerkia, kontzertua eta ikastaroa Kiñun

Barrea eta harridura ekarriko dauan antzezlan antolatu dabe Igorreko Gaztetxeak. Ismael Pereira igorretarra, Iñaki Maruri eta Mitxel Santamariaren *Impro-Komeryak* 2020ko Donostiako Poltsikoko Antzerki Jaialdian aurkeztu zan eta "proposamen barria, barrizalea eta beharrezkoa" moduan aurkeztu eben egileak orduan. Umorezko inprobisazio ekitaldi hau ikusteko aukerea garagarilaren 3an, 21:00etan, egongo da Igorreko Kiñu Gaztetxean.

Hurrengo barikurako, kontzertua antolatu dabe. Uckaia eta Suger rock talde arratiarrak joko dabe Gaztetxean. Pandemiaren osteko lehen kontzertua dala eta kultura bultzatzeko sasoia dala dinoe antolatzaileak. Ekitaldi bietan, sarrerearen prezioa borondatezkoa izango da.

Torontileren eskutik serigrafia ikastaroa be antolatu dabe Gaztetxean garagarilaren 7, 9, 14 eta



16rako. Saio biko ikastaroa, hiru saiokoa edo lauokoa egin daiteke, 50, 65 eta 75 eurotan hurrengo hurrengo. Eskolak 18:00etatik 21:00etara izango dira eta izena alde aurretik emon behar da torontile@gmail.com helbidean edo 622 390 883 telefonoan.

Karabien zinea

Zinezaleen abstinentsia sindromea apur bat baretzeko asmoa dakarre Harrikerarrak Gazte Asanbladakoak, Karabie Gaztetxe atzeko futbol zelaian montau daben zinean. Pelikulea ikusteko ikusle bakotzak bere aulkia eroan behar dau. Itxialdia, konfinamentua eta gizartearen jokare holango egoeretan daukie gaitzat Lemoan ikusi ahal izango diran filmok.

Emonaldiak bagilaren 25ean ziran hastekoak. Lehenengo, *Aupa Etxebeste!* zan, gaur egungo egoeran, umorezko klabean, konfinamentua iragarri eban pelikulea dala esan leiteke. Halanda be, eguraldia dala eta zehaztu barik dagoan egun batera atzeratu eben pelikulea. Garagarilaren 2an, barriz, Galder Gaztelu-Urrutiaren *El hoyo* 2019ko filma egongo da ikusgai. Pelikuleak hainbat sari jaso dauz eta distopia batek arlo politiko, sozial eta erlijiosoan, besteak beste, daukan eragina erakusten dau. Zientzia-fikzioa eta alegoriaren artean dagoala esan lei.

Hilaren 9an barriz, *Shutter Island* AEBko eroetxe baten girotutako thriller-a egongo da ikusgai. Emonaldiak 22:00etan dira.



MUSIKEA

Ez da Dimetal Fest jaialdia egingo 2020an

Erredakzioa

2021eko urri lehenengoaren 24 eta 25era mobidu dabe seigarren emonaldirako iragarrita egoan kartel osoa. Erositako sarrera eta txartelak balio izango dabe datorren urterako, baina dirua berreskuratu gura dabenai, itzuli egingo jakie garagarilaren 1etik 15era.

COVID-19a dala-eta, indarrean dagozan neurriak "behar bezala osatu eta benetan gozatzeko aukerarik ez deuskue emoten" eta horregaitik "min handiagaz" ez da 2020an egingo Dimetal Fest-en seigarren edizioa. Antolatzaileak espero dabe 2021eko urri lehenengoaren 24 eta 25ean neurri horreek ez dirala egongo indarrean eta kartel osoa mobidu dabe fetxa horreetara.

"Ez dogu jaialdia bertan behera itxi edo atzeratu dogunik esan gura izan, normaltasun barri honek zuzendutako baldintza zehatzak ezetu arte. Oin badakigu egoera zelan dagoan eta ez dogu emonaldia parada honetan aurrera eroaterik aurreikusten. Personarteko urrutzea, maskaren ezinbesteko erabilera edota eukiarearen murriztapena lango kontzeptuak, rock jaialdi batez bateraezinak dira" dinoe Dimetaleroak alkatarkoak. Gainera, neurri honek ezartzea diru aldetik bideraezina izango litzateke alkatereantzat.

Taldeen baiezkua

Hile honeetan, antolatzaileak kartela osotuten dabezan 37 taldeakaz ipini dira hartu-emonetan, galdetzeko ea prest dagozan data barrietan joteko eta kartel osoa data barrietara egokitzea lortu dabe.

Barikuan, 2021eko urri lehenengoaren 24an, 15 taldek joko dabe: Reno Renardo, Sangre, Valkyria, Power Scream, Crucifucked, Blast Wave, Cult Misery eta Mutilated Judge, dobaneko eszenaleku bietan; eta Kartzarot, Hira, Ehun Kilo, Asgarth, Akelarre, Pi L.T. eta Idi Bihotz, sarrereagaz ikusi ahal izango diran karpapeko eszenaleku bietan. Bestalde, zapatuan, gainontzeko 22 taldeen txandea izango da: Elizabeltz, 4 Villains, W.A.B., Unholy Covers, Fetitxe, Sealed Room,

Ferosz, Knives, Estampida, Conflict Noise eta Bullets of Misery doban; eta Etorkezun Beltza, Revolta Permanent, The Capaces, Hilotz, Niña Coyote eta Chico Tornado, Numen, Eraso!, Killus, Cobra, Rat-Zinger eta Soziedad Alkoholika ordaintuta.

Sarrerak eta merchandising-a

2021eko sarreraren salmentek jarraituko dau jaialdiaren webgunean, www.dimetalfest.com. Dirua berreskuratu gura dabenak barriz, info@dimetalfest.com helbide elektronikora idatzi edo sarrera fisikoen salmenta puntuetara jo behar dabe garagarilaren 15era arte.

Seigarren edizino ofizialari ekin baino lehen, merchandising "interesgarria" aterako dabe Dimetaleroak alkatarkoak, gastuakaz lagundu gura dabenentzat.



Argazkia: Eider Iturriaga, Izarbe Photo.

EUSKERA

Enpresetarako EusGara zerbitzua abian da barriro



Erredakzioa

Arratiako enpresetan euskeraz behar egiten lagunduteko sortu zan EusGara proiektua, Arratia euskaldunagoa egiten eta euskeraren enpresearen garapenerako lagungarria izateko. Zerbitzuak, beste batzuen artean, itzulpen zerbitzuak edo taldeak motibetako saioak eskaintzen ditu. Pandemia dala-eta, itxialdiaren ostean, abian da barriro proiektua, zerbitzuak egingo egoerara egokituta.

Euskerea erabilteak enpreseari bentaja handiak emoten deutzaz Andoni Solorzano eta Miren Madiaga proiektuaren koordinatzaileen arabera. Izan be, bertako merkadua izan ezker, bezeroen beharrai erantzuten jakie, eta kanpoko merkadurako lan egin ezker,

bereizgarri bat emoten deutso enpresa horri munduan dagozan gainontzeko miloeka enpresen aurrean. Baita historia bat, komunitate bat eta lan egiteko era bat be.

Euskaraldia enpresan sustatzeko laguntza

EusGarak enpresetan euskeraz behar egiteko, debaldeko zerbitzu teknikoa eskaintzen dau. Hizkuntza aholkularitza, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza hobetuteko aukerak, diganostikoa eta aurrera begirako proposamenak, itzulpenak, zuzenketak, euskerazko baliabideak, lantaldeak motibetako saioak, Euskaraldia enpresan sustatzeko laguntza eta dirulaguntzen eta ziurtagiriaren gaineko informazioa emoten dabe, besteak beste.

DUNBA

Teleikasketak

Arratia Institutuko ikasleak. Aitor Etxebarria, Cosmina Picirita, Eneko Peribañez, Jon Ander Aranguren, Jon Arana, Lukas Aldape, Markel Olabarrieta, Martina Aviles eta Yassine Assehli

COVID-19 birusak sortutako pandemia golpe latza izan da guztiontzat. Esan daikegu, gure egunerokotasuna guztiz desbardina bihurtu zala, martiaren 13an konfinamentua martxan ipintea ebatzi ebenetik.

Hirugarren ebaluaketea etxean egin dogu. Nahiz eta hasikera baten teleikasketak egitea asko kostau jakun, oin bagara ikasle asko etxetik hobeto lan egiten dogunok. Egoera honerik esker, erantzukizun maila altu bat lortu dogula uste dogu, eta gure kompetentziak garatzea.

Horrez gainera, geure burua hobeto ezetutera eroan gaitu egoera honek, zaletasun barriak

topatzera edota bagenduzanak ez baztertzera. Izan be, familia-kideen artean erlazinoak sendotu dala esan daiteke, alkarregaz denpora gehiago pasatea beharrezkoa izan da eta. Beste alde batetik, orduetegiaren malgutasuna izan dogu, irakaslearen metodologia eta ordutegiaren arabera izan da-eta etxerako lan epea edota bideo-dei orduak.

Egia da, era telematikoa lan egitea oso gaxa izan dala, batzuentzako mobila, telebista, bideo-jokoak eta era guztietako entretenimenduak eskura izanda, horreek baztertzera eta etxerakolanak egitea edota bideo-deietara konektetea ez da bape erraza izan.

Horrez gain, gure lagunak ez egotea izan da gaxena; komunikazio presentziala galtzea sano gaxa egin jakun; izan be, nerabe askok, bizitza kalean egiten dogu. Gure egunerokotasunean, denpora asko pasetan dogu kanpoan edota lagunaren artean, eta bat-batean hori dana ezinezkoa izatea oso gaxa izan da askorentzako.

Alde batetik, irakasleen batbeteo laguntza be faltan bota

dogu. Izan be, etxean gengoza-nez gmail baten bidez komunikau behar ginan eta irakasle askok ehunda ikasle izanik, danoi denporaz erantzutea oso gaxa

egin jakie.

Beste aldetik, gehienok internet bidez lan egin ahal izan dogu, baina izan dira beharrezko baliabiderik izan ez dituen ikasleak.



Arazo horren aurrean, Arratia BHI Institutuak 35 ordenagailu eroangarri eskaini ditu, eta Izarkom enpresek 20 SIM txartel doban emon ditu etxean wifi konexiorik ez eukientzat.

Izan dogun lan kargaren aldetik, ikasle bakotzak eretxi desbardin bat dauka, hau da, batzuek lan gehiegi eukiela eta itota sentidu dirala esan dabe eta beste batzuek lasai-lasai egon dirala. Egoera honerik ikasle telematikoa egiteko eretxi positiboak eta negatiboak batu ditu, batzuek holan hobeto egiten dabe lan eta beste batzuek klase presentzialak gurago ditue. Horregaitik, gobernuak klasera bueltetako agindua emon ebanean, algarak zein malkoak egon ziran ikaslearen artean, azterketa garaia zalako bildur nagusia.

AGENDEA

**GARAGARRILAK 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko hilaren 10era arte.

ARRATIA

2020-2021 ikasturterako Igorreko AEK-ko Kubulu Euskaltegian matrikula egiteko epea zabalik. Hilaren 8a baino lehenago egin ezker deskontua eta beste bentaja batzuk. Telefonoa: 94 631 56 57.

BEDIA

10:30etik 13:30era, garagarriaren 24ra arte, Udal Liburutegia zabalik. Mosukoa derrigorrezkoa da.

Garagarriaren 22ra arte, Egutegia: Bediako Ohiturak Erakusten Argazki Lehiaketarako izen emotea liburutegian.

DIMA

Hilaren 3ra arte, Gazte Abentura 2002 eta 2007 bitartean jaiotakoentzat.

IGORRE

10:00etatik 13:30era, astelehenetik barikura, Igorreko Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo liburu.igorre@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

LEMOA

Hilaren 20ra arte, Play-back erakustaldia. Modu horizontalean grabatutako bideoa, kantua (artxibo bi) eta egilearen izena 674 337 465 WhatsAppera bialdu. Bideoak ikusgai egongo dira abuztuaren 1ean, 17:00etan, lemoakoudala.nirestream.com plataforman.

Kike Amonarrizek, bagilaren 30ean emondako Lemoako Euskaraldiaren aurkezpen berbaldia lemoakoudala.nirestream.com helbidean ikusgai.

10:30etik 13:00etara, hilaren 24ra arte, Udalak antolatuta, jolaslekuak 2020, 2008 eta 2015 urteen bitartean jaiotako umeentzat.

Hilaren 24ra arte, Kalea hartuz 2020ko Uda programearen barruan, egunero ekintza Lemoan zehar, bakotzak gura dauan momentuan egin ahal izango dauana. Ekintza jakiteko herrian ipiniko dituen paneletan begiratu edo egunero email edo WhatsApp-ez jaso daiteke, udalean inprimaki bat bete ezker.

10:00etan eta 18:00etan, astelehenetik barikura, Gimnasioa kalean, gimnasiako saioak monitoreak Udalak antolatuta. Izena 94 631 42 97 telefonoan emon

10:00etatik 14:00etara.

10:30etik 13:30era, astelehenetik barikura, Liburutegiko mailegu zerbitzua. Liburuak hartu eta itzuli. Liburuak eskatzeko deitu 94 631 20 64 telefonora zerbitzu ordutegian edo bialdu mezu bat eskaereagaz liburutegia@lemoa.net helbidera. Katalogoa www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua webgunean.

Eguaztenetan, 09:00etatik 14:00etara, Udalak Oingabiz: ariketa fisikoa eta bitzta osasungarria sustatzeko programea eskaintzen jarraituten dau modu telematikoa. Hitzordua, WhatsApp bidez hartu behar da 678 064 892 zenbakian.

10:00etan, astelehenetik zapatara, tren geralekuan eta domeketan 09:00etan Arlonagusian, Lemoako Txirindulari Elkarteak antolatuta, Arratiatik bizikleta urtekerea.

ZEANURI

2020ko Zeanuriko Andra Marietako Kartel Lehiaketea. Proiektuak Zeanuriko udaletxeko erregistroan aurkeztu behar dira, modu presentzialean edo emailaz harrera@zeanuri.eus helbidean.

Zeanuri Loran 2020 Pisu eta etxeetako balkoietako III. Lora Txapelketea. Txapelketea abuztuaren 10era arte izango da.

ZEBERIO

Urri bigarrenaren 31ra arte, herriko ingurua eta ekintzak gaitzat daukiezan argazkiak bialdu daitezke udala.zeberio@bizkaia.org helbidera 2021eko egutegia osotutako Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Argazkiak horizontalak izan behar dira baina ez panoramikoak.

**GARAGARRILAK 2
LEMOA**

22:00etan, *El hoyo* filma Karabie Gaztetxe atzeko futbol zelaian. Aulkia eroan behar da. Harriketarrak Gazte Asanbladeak antolatuta.



**GARAGARRILAK 3
AREATZA**

Hilaren 5era arte, Pirinioetara urtekerea Lamino Kirol Klubak antolatuta. Senda Camileko etapa bi egingo ditue parte hartzaileak Lizara eta Gabarditoko aterpeetan lo eginda. Bisaurin (1.108m.).

IGORRE

21:00etan, umorezko inprobisazioa, *Impro-Komeryak* Jose Cruz Gurrutxaga, Iñaki Maruri, Mixel Santamarina, Mikel Bermejo eta Ismael Pereiraren eskutik Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

12:00etan, Txirindulari barrientzako aholkuak lemoakoudala.nirestream.com plataforman.

**GARAGARRILAK 4
LEMOA**

20:00etan, Dientes de luna taldearen kontzertua lemoakoudala.nirestream.com helbidean.

**GARAGARRILAK 6
DIMA**

Hilaren 10era arte, udalekuak 2012 eta 2015 urteen artean jaiotakoentzat.

**GARAGARRILAK 7
ARTEA**

11:00etan, (5-8 urtekoak) eta 12:30ean, (9-12 urtekoak), Artean Udak Jolasak programearen barruan, Planeta zaindu eta Kirol jolasak. Plazan.

IGORRE

18:00etatik 21:00etara, Serigrafia ikastaroa Kiñu Gaztetxean. Izena emon torontile@gmail.com edo 622 390 883 telefonoan.



**GARAGARRILAK 9
IGORRE**

18:00etatik 21:00etara, Serigrafia ikastaroa

Kiñu Gaztetxean. Izena emon torontile@gmail.com edo 622 390 883 telefonoan.

LEMOA

22:00etan, *Shutter Island* filma Karabie Gaztetxe atzeko futbol zelaian. Aulkia eroan behar da. Harriketarrak Gazte Asanbladeak antolatuta.

**GARAGARRILAK 10
IGORRE**

21:00etan, Uckaia eta Suger taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

**GARAGARRILAK 11
AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Ibilbide didaktikoa Orozko herritik. Herrian zehar ibilbide gidatu bat egin ondoren, Artzainen museoan bisita gidatua egiteko aukerea egongo da. Izena emon Parketxean (Gudarien Plaza, Areatza), gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

ZEANURI

18:00etan, Mugarri Pelota Desafioa Joko Alai (Zeanuri) vs Txumuluxueta (Dima). Plazako frontoian. Buruz buru: D. Beitia vs X. Rekalde; bikoteka: Etxeita-Emaldi vs Zapiko-Ziarrusta II; lau t'erdian: Mendia vs E. Ziarrusta. Plazako frontoian.

**GARAGARRILAK 13
DIMA**

Hilaren 17ra arte, udalekuak 2007 eta 2011 urteen artean jaiotakoentzat.

IGORRE

Hilaren 30era arte, Udako Umeen Ekintzak.

**GARAGARRILAK 14
ARTEA**

11:00etan, (5-8 urtekoak) eta 12:30ean, (9-12 urtekoak), Artean Udak Jolasak programearen barruan, Abordatzera (partxea, itsasontzi pirata, txotxongiloa, txapak...). Frontoian.

IGORRE

18:00etatik 21:00etara, Serigrafia ikastaroa Kiñu Gaztetxean. Izena emon torontile@gmail.com edo 622 390 883

telefonoan.

**GARAGARRILAK 15
LEMOA**

20:00etatik 21:30era, Ganzabalen hilaren 19ko mendi urtekerarako izen emotea 675 701 359 telefonoan.

**GARAGARRILAK 16
IGORRE**

18:00etatik 21:00etara, Serigrafia ikastaroa Kiñu Gaztetxean. Izena emon torontile@gmail.com edo 622 390 883 telefonoan.

**GARAGARRILAK 19
LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako mendi urtekerea, Ekai-Goñi. Gaztelu (998 m.)-Txurregi (1.128 m.)-Satrustegiko Haitza (1.204 m.)-Lezizagoa (1.348 m.).

**GARAGARRILAK 21
ARTEA**

11:00etan, (5-8 urtekoak) eta 12:30ean, (9-12 urtekoak), Artean Udak Jolasak programearen barruan, Egurrezko jolasak eta Asmatzaileak gara. Plazan.

**GARAGARRILAK 28
ARTEA**

11:00etan, (5-8 urtekoak) eta 12:30ean, (9-12 urtekoak), Artean Udak Jolasak programearen barruan, Jolas erraldoia eta Txikirally. Frontoian.

**GARAGARRILAK 31
LEMOA**

12:00etan, txupinazioa eta pregoia; 22:00etan, Txapelketa taldearen kontzertua lemoakoudala.nirestream.com plataforman.

**ABUZTUAK 1
LEMOA**

17:00etan, Play-back erakusketea; 22:00etan, La Topadora taldearen kontzertua lemoakoudala.nirestream.com plataforman.

Oraineko Urri ikastetxeak

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidazeko
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazino onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktua zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiltz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezker, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrik emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrik emoten dira online

zein modu prezentzian, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Anima! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, zaparradabatukada@gmail.com emailean, Instagramen [@zaparrada_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Udalak emondako *Fasioren mendea* CD-liburu bana.

Karmele Angoitia (Zeanuri)
Garazi Yurrebaso (Arantzazu)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza 649 869 536

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48110 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 35

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Kepa Intxausti
TAXI ZERBITZUA
609421222
IGORRE

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zikutezikute@hotmail.com
Tel.: 94 631 52 83

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Pinturas Anaitia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu Bizkaia egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAUDI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



GTX CONTAINEX
BANATZAILEA



TeknoDidaktika
Formación Práctica en PRL
LAGUNTZAILEA



Nilfisk
BANATZAILEA



MASTER
CLIMATE SOLUTIONS
BANATZAILEA



MANITOU
HANDLING YOUR WORLD
BANATZAILEA